

Iragarkia

Udalerri honetako zergadun guztiei jakinarazten zaie, 2004ko Udal Hilerriko Panteoen Mantenimendu-Tasaren ordainagiriak, 2004ko azaroaren 2tik 2004ko abenduaren 31ra, borondatezko epean ordaindu daitezkeela, biak barne.

Epe hori pasa ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagiriak, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

Arrasate, 2004ko azaroaren 2a.—Alkatea.

(4071)

(10348)

AZPEITIKO UDALA*Iragarkia*

Azpeitiko Udal Batzarrak, 2004ko azaroaren 4an egindako bilkuran, ondoren argitaratuko den ibilgailuen zarataren gaineko udal agintarauari haserako onarpena ematea onartu zuen.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Udal Erregimenaren Oinarriak arautzen dituenak, 49 artikuluan xedatutakoaren arabera, hartu den erabakiaren eta horretarako ireki den espedientearen berri ematen zaio jendeari. Era berean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, 30 laneguneko epea izango dute, egokiak iruditzen zaizkien alegazio edo erreklamazioak egiteko. Erreklamazio edo alegazio hauek, Azpeitiko Erregistroan aurkeztuko behar dira (bulegoko ordutegian), eta Udal Batzarrari zuzenak izango dira.

Jendaurreko epea igaro ondoren, erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ezean, Araudia behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko akordiorik behar izan gabe.

**IBILGAILUEN ZARATAREN GAINEKO
UDAL AGINTARAUA***1. artikulua. Helburua eta ezarpen-esparrua.*

1. Agintarau honen helburua da ingurumen arloaren kalitateari dagokionez pertsonen dituzten eskubideak babestu eta hobetzea, motordun ibilgailuek, eta batik bat ziklomotor eta motozikletek, sortutako zaratek dakarten kutsadura akustikoaren aurrean.

2. Ezarpen eremua Azpeitiko udalerria izango da. Han jasotako xedapenak Administrazioaren beste erakunde batzuek, euren eskumeneko gaietan, egin ditzaketen partehartzeen kalterik gabe ezarriko dira.

3. Motordun ibilgailuen eta ziklomotorren titular diren pertsonak derrigortuak daude indarrean diren zarata mailak ez gainditzeko beharrezko diren neurriak jartzera, norbanakoei halakorik eskatzeko egintza edo agindurik eman beharrik gabe.

2. artikulua. Zirkulaziorako baldintza orokorrak.

Trakzio mekanikoz dabilztan ibilgailu guztiek funtzionamendu egoera onean izan beharko dute motorra, transmisioa, karrozeria eta zaratak eta dardarak sor ditzaketen gainerako elementuak eta, bereziki, ke-hoditik ateratzen diren gasen zarata isilgailua, dagokion ibilgailuak, hala zirkulazioan nola geldirik dagoela ateratzen duen zarata-mailak ez ditzan gainditu Agintarau honetan ezarritako neurriak.

Anuncio

Se pone en conocimiento de los contribuyentes de este Municipio, que los recibos correspondientes a la Tasa por Mantenimiento de Panteones del Cementerio Municipal, se podrán abonar en período voluntario del 2 de noviembre al 31 de diciembre del 2004, ambos inclusive.

Pasado dicho período, los recibos pendientes de pago se cobrarán con un 20% de recargo.

Arrasate, a 2 de noviembre de 2004.—El Alcalde.

(4071)

(10348)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 4 de noviembre de 2004 acordó aprobar con carácter inicial la ordenanza municipal sobre ruido de vehículos cuyo texto se publica a continuación.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art.49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que cualquier ciudadano pueda presentar en el Registro de este Ayuntamiento, (en horario de oficina) las reclamaciones y alegaciones que estimen oportunos, dirigidas al Ayuntamiento Pleno como órgano competente para su resolución.

En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

**ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE
RUIDO DE VEHICULOS***Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.*

1. La presente Ordenanza tiene por objeto proteger y mejorar la calidad ambiental a la que tienen derecho las personas frente a la contaminación acústica por los ruidos originados por los vehículos a motor y especialmente, por ciclomotores y motocicletas.

2. Su ámbito de aplicación es el término municipal de Azpeitia. Sus disposiciones se entienden sin perjuicio de las intervenciones que correspondan a otros organismos de la Administración en materia de su competencia.

3. Las personas titulares de vehículos de motor y ciclomotores están obligadas a adoptar las medidas necesarias para observar los niveles de ruido aplicables, sin necesidad de actos de requerimiento o sujeción individuales.

Artículo 2. Condición general de circulación.

Todo vehículo de tracción mecánica deberá tener en buenas condiciones de funcionamiento el motor, transmisión, carrocería y demás elementos capaces de producir ruidos y vibraciones y, en especial, el dispositivo silenciador de los gases de escape, con el fin de que el nivel sonoro emitido por el vehículo tanto en circulación como en régimen de parada, no exceda de los límites establecidos en esta ordenanza.

3. artikulua. Debeku orokorrak.

1. Debekatua dago motordun ibilgailu eta ziklomotorrek elementu isilgailurik gabe zirkulatzea edo haiek alferrikakoak edo desgokiak dituztela edota hodi burrunbarrak jarritu.

2. Debekatua dago ibilgailuen martxak behartzea, beharrezko ez diren azelerazioen ondorioz zarata gogaikarriak sortuz.

3. Debekatua dago ibilgailuen kanpoaldean Agintarau honetan jarritako neurriak gaindituko dituen bolumenean erabiltzea soinu-erreprodukzioarako sistemak.

4. Debekatua dago jendea bizi den gunetan klaxonak edota gainerako beste edozein seinale akustiko jotzea, une horretan norbait harrapatzeko edota ibilgailuek elkar jotzeko arriskua balego izan ezik edota larrialdietako zerbitzu publiko edo pribatuak izan ezean.

4. Isilgailuak konpondu eta saltzeko jarduerak.

1. Ibilgailuentzako isilgailuak saldu eta/edo konpontzeko lantegien titularrek adierazi egin beharko diete ibilgailuen jabe diren pertsonen debekatua dagoela isilgailurik gabe ibiltzea, eta herrian zirkulatzeke dagokion ibilgailuarentzat homologatua ez legokeen isilgailurik ezin dela erabili. Era berean, manipulatzeko ere debekatua dagoela, eta beraiek ezin dutela horrelako ekin-tzarik egin.

2. Bestalde, udal-agintariekin lankidetzan arituko dira, Agintarau hau praktikan jartzeko.

5. artikulua. Kautelazko neurriak.

Ingurumen arloan herritarrek izan beharreko kalitatea zain-tzeko komenigarri ikusiko balitz, Udalak hainbat zonalde edota zirkulazio bide babestu ahal izango ditu, haietan Agintarau honetan ezarritakoaren arabera trafikoak zarata-maila altuak sortuko balitu, eta trafikoaren ordutegia, abiadura edota han ibili ohi diren ibilgailuen zirkulazioa murrizteko arauak eman ahal izango ditu.

6. artikulua. Udal ibilgailuak.

Udalak zarata maila txikia sortzen duten ibilgailuen erabi-lera bultzatuko du hala bere jabetzako ibilgailuetan nola obra edo zerbitzu publikoen esleipena jaso dutenen artean, zirkula-zioan edota dagokion jarduera egiterakoan. Horretarako, kon-tratazioarako baldintza tekniko-administratiboetan hori lortzeko baldintza zehatzak jarriko ditu.

7. artikulua. Trafikoa zaintzea.

1. Agintarau honetan xedatua dagoena betetzen dela zain-tzeko lanak Azpeitiko Udaltzainei dagozkie. Horretarako ibil-gailu zatatzuak gelditu ahal izango ditu, eta motordun ibil-gailu eta ziklomotorren jabe edo/eta gidariek euren ibilgailuak zarata kontrolatzeko frogak bete beharko dituzte derrigorrez, Udaltzainek hala eskatuko baliote.

2. Motordun ibilgailuen eta ziklomotorrek sortutako zarata kontrolatu ahal izateko, izaera orokorreko kontrol pre-bentiboak egin ahal izango dira, Udal honek ezarriko dituen egitasmoen arabera.

3. Ibilgailuen gidari eta/edo jabe guztiak derrigortuak daude Agintarau hau betetzeko Udaltzainek edota enpresa homologatu edo kontzesionarioetako pertsonal kualifikatuak ezar ditzaketen probak egitera.

Artículo 3. Prohibiciones generales.

1. Queda prohibida la circulación de vehículos a motor o ciclomotores sin elementos silenciadores o con los mismos ineficaces, inadecuados o equipados con tubos resonadores.

2. Queda prohibido forzar las marchas de los vehículos produciendo ruidos molestos debidos a aceleraciones innecesarias.

3. Queda prohibida la utilización de los sistemas de reproducción de sonido de los vehículos a un volumen que supere en el ambiente exterior los límites establecidos en la presente ordenanza.

4. Queda prohibido el uso de bocinas o cualquier otra señal acústica en zonas residenciales, salvo en caso de inminente peligro de atropello o colisión o que se trate de servicios públicos o privados de urgencia.

Artículo 4. Actividades de reparación y venta de silenciadores.

1. Los/as titulares de los talleres de venta y/o reparación de silenciosos de vehículos deberán advertir a las personas poseedoras de vehículos de la prohibición de circular sin silenciador, de utilizar silenciadores que no estuvieren homologados para la circulación en vías urbanas para el vehículo de que se trate y de la manipulación en los mismos, debiendo asimismo abstenerse de realizar ellos mismos tales actividades.

2. Por otro lado colaborarán con las autoridades municipales en la aplicación práctica de la presente ordenanza.

Artículo 5. Medidas cautelares.

En los casos en que se considere conveniente para velar por la calidad ambiental de los ciudadanos, el Ayuntamiento podrá proteger zonas o vías de circulación en las que el tráfico de vehículos origine niveles sonoros elevados según lo establecido en esta ordenanza, regulando el tráfico en horario, velocidad o restringiendo la circulación a los diferentes tipos de vehículos.

Artículo 6. Vehículos municipales.

El Ayuntamiento potenciará la utilización de vehículos, tanto propios como de concesionarios de obras o servicios públicos, con bajos niveles de emisión sonora, tanto en la circulación como en la realización de la actividad específica. A tal efecto incorporará en los pliegos de condiciones técnico-administrativas de la contratación las cláusulas específicas al respecto.

Artículo 7. Vigilancia de tráfico.

1. La competencia de la vigilancia respecto al cumplimiento de lo establecido en esta Ordenanza corresponde a la Policía Local de Azpeitia, mediante la interceptación de los vehículos ruidosos, estando obligados todos los propietarios y/o conductores de vehículos a motor y ciclomotores a someter a sus vehículos a las pruebas de control de ruido para las que sean requeridos por la Policía Local.

2. Con el fin de controlar el nivel de ruido emitido por los vehículos de motor y ciclomotores se podrán realizar controles preventivos de carácter general de acuerdo con los programas que establezca este Ayuntamiento.

3. Todas las personas conductoras y/o poseedoras de vehículos quedan obligadas a someterse a las pruebas que para el cumplimiento de la presente ordenanza pueda establecer el personal de la Policía Municipal o personal cualificado de las empresas homologadas o concesionarias.

4. Udaltzainek, hala kalean nola zeregin horietarako presatutako udal dependentzia edo barrutietan, zarata kontrolatzeko neurketak egiten dituzten guztian, lortutako emaitzak jasoko dituen akta bat egin beharko da.

8. artikulua. Ibilgailuen kontrola.

1. Udaltzainek irizten diotenean ibilgailu bat Agintarau honetan zehaztutako zarata-mailak gainditzen ari dela, sortutako zarataren neurketa egingo da eta, horrez gain, ibilgailuaren elementu eta osagarriak indarrean den legediari egokitzen zaizkion egiaztatuko.

2. Egindako neurketa kontrakoa baldin bada, badaezpada ere, honakoa egingo da:

a) Lortutako emaitzek sei (6) dB(A) baino gutxiago gainditzen badituzte Agintarau honetan ezarritako neurriak, salaketa jarriko da, akats hori konpontzeari baldintzatua. Honelakoetan, ibilgailuaren titularrak hamabost eguneko epea izango du akatsak zuzentzeko, konponketak egiteko baimena duen edozein lantegitan.

Aipatutako epe hori igarotzen denean, ibilgailuaren titularrak udal bulegoetara agertu beharko du, zarata-igorpena neurtzeko berriro. Akatsa konpondu dela ikusiko balitz, salaketa kendu egingo da, beti ere titularrari ez balitzaio aurrez kendu beste salaketa bat arrazoi beragatik.

Aipatutako epea igaro ondoren akatsak ez balira konpondu, Udaltzainek ibilgailua jaso egingo dute udal-bulegoetan, dagokion arau-hasuteagatik jarri beharko duten salaketaren kalterik gabe.

b) Ateratako emaitzek sei (6) dB(A) gaindituko balute ezarrita dagoen zarata-maila, ibilgailu edo ziklomotor hori zuzenean ibilgetu eta dagokion salaketa egingo da.

3. Ibilgailu edo ziklomotorra ibilgetua geratzen denean, haren titularrak hamabost egun izango ditu akatsak zuzentzeko eta hura jasotzeko. Lekualdatzeagatik eta gordeta edukitzeagatik dagozkion tasak ordaindu ondoren, atoi edo karga sistemaren bat erabili beharko du ibilgailua edo ziklomotorra konponketa-lantokiren batera eramateko, ibilgailuaren osagarriak indarrean den legedia betetzen duten jakite hutserako, bide publikoan martxan jarri gabe.

4. Ibilgetze hori zarata-igorpenaren neurketak egin baino lehen egin ahal izango da, baldin-eta gidariak ez balitu egin nahiko zarata-kontrolerako neurketak edota ibilgailua «ihes-tutu libre» isilgailurik gabe baldin balebil edota gasak ateratzeko hodia aldatuta baldin badauka edota, hura jarria daukan ibilgailuarentzat homologatu gabea izanik, antzeko ondorioak sortzen baditu. Ibilgailuaren segurtasunerako edota hura erabili ezina bermatzeko ibilgetzea helburu horretarako zehaztuko den udal-biltegian egingo da eta dagokion salaketa jarriko da.

5. Zarata-igorpenak neurtzeko prozedura Agintarau honen Eranskinean xedatuko denaren arabera egingo da.

6. Baztertutako edo alde batera utzitako ibilgailu edo ziklomotortzat joko dira biltegiara ekarri ondoreneko bi hilabetekeo epean jasoko ez direnak.

4. Siempre que los agentes de la Policía Municipal realicen medidas de control de ruido, tanto en la calle como en las dependencias municipales habilitadas al efecto, deberán levantar acta con los resultados obtenidos.

Artículo 8. Control de Vehículos.

1. Cuando por parte de los Agentes de la Policía Local consideren que un vehículo pueda estar superando los límites sonoros permitidos en esta Ordenanza se procederá a realizar medición de la emisión así como a comprobar la adecuación de los elementos y componentes del vehículo a la legislación vigente.

2. Si la medición efectuada resulta desfavorable se procederá, como medida cautelar, a:

a) Si los resultados superan los límites establecidos por esta ordenanza para cada categoría en menos de seis (6) dB(A) se impondrá denuncia condicionada a la reparación de la anomalía. En este caso el titular del vehículo dispondrá de un plazo de quince días para corregir las deficiencias en cualquier taller de reparación autorizado.

Transcurrido dicho plazo, el titular del vehículo deberá presentarse en las dependencias municipales para volver a medir la emisión de ruido. Si se constata que la deficiencia ha sido subsanada, será anulada la denuncia, siempre y cuando a la persona titular no le haya sido anulada anteriormente otra denuncia por la misma causa.

Si transcurrido el plazo anteriormente citado, las deficiencias no hubieran sido subsanadas, los agentes de la Policía Municipal procederán a la inmovilización del vehículo en las dependencias municipales, sin perjuicio de la denuncia que habrán de formular por la infracción correspondiente.

b) Si los resultados superan en seis (6) dB(A) los límites establecidos, se procederá directamente a inmovilizar el vehículo o ciclomotor y se formulará la correspondiente denuncia.

3. Cuando el vehículo o ciclomotor quede inmovilizado el titular del mismo tendrá quince días para subsanar las deficiencias y deberá para su retirada, previo pago de las tasas que en concepto de traslado y depósito correspondan, utilizar un sistema de remolque o carga que permita el transporte del mismo hasta un taller de reparación sin poner el vehículo o ciclomotor en marcha en la vía pública, a los solos efectos de proceder a la adecuación de sus componentes a la legislación vigente.

4. La inmovilización se podrá realizar sin la medición previa de los niveles de emisión si la persona conductora se niega a efectuar las pruebas de control de ruido o si el vehículo circula sin dispositivo silenciador «escape libre» o cuenta con tubo de escape de gases modificado o no homologado para el tipo de vehículo en el que está instalado que produzcan efectos similares. La inmovilización para garantizar la seguridad e indisponibilidad del vehículo, se llevará a efecto en el depósito municipal que se establezca y se formulará la correspondiente denuncia.

5. El procedimiento de medición de las emisiones sonoras se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el Anexo de esta Ordenanza.

6. Se aplicará el régimen de vehículos abandonados a los vehículos y ciclomotores retenidos que no sean retirados en el plazo de dos meses, contados a partir de la fecha de recepción.

9. artikulua. Onar daitezkeen zarata-neurriak.

1. Oro har, zirkulatzen ari diren ibilgailu-mota guztiek, zaratari dagokionez, 1958ko martxoaren 20ko Genevako Akordioari erantsitako 9., 41. eta 51. Araudiak bete beharko dituzte, bai eta ibilgailu berrien homologaziorako 92/97/CEE Zuzentaraua eta ondorengo eguneratze-agiriak ere.

2. Ziklomotorrei dagokionez, bi eta hiru gurpileko Motordun ibilgailuen elementu eta ezaugarriei buruz 92/97/CE zuzentarauaren 9. kapituluaren jaso dagoena bete beharko dute 2000-06-17tik gerora matrikulatutako ibilgailuek eta, egun hori baino lehen matrikulatutakoek, berriz, zaratari dagokionez ibilgailuak homologatzeari buruzko 1972/05/25eko 1439/72 Dekretua.

Udalerrian ibiliko diren ibilgailuen zarata-igorpenaren kontrolari dagokionez, berriz, motozikleta, ziklomotor eta kuadriziklo arinentzat onar daitezkeen gehieneko baloreak dokumentazioan/dagokion motorraren abiadura-erregimenerako ibilgailuaren homologazio xafan jarriak daudenak izango dira. Ibilgailuak ez balu izango horrelako adarazpenik, ezarri beharreko neurriak ondorengo taulan datozenak izango dira:

Artículo 9. Niveles de ruido admisibles.

1. En general los distintos vehículos en circulación cumplirán en lo que respecta al ruido lo especificado por los Reglamentos n.º 9, 41 y 51 Anexos al Acuerdo de Ginebra de 20 de marzo de 1958 y la Directiva 92/97/CEE para homologación de vehículos nuevos y documentos posteriores de actualización.

2. En el caso de ciclomotores, se estará a lo que se indica en el capítulo 9 de la Directiva 97/24/CE relativa a elementos y características de los vehículos de motor de dos y tres ruedas para aquellos matriculados con posterioridad al 17/06/2003 y al Decreto 1439/72 de 25/05/72 relativo a la homologación de vehículos en relación con el ruido, para los matriculados con anterioridad a dicha fecha.

En relación con el control de los niveles de emisión de los vehículos que circulen por el término municipal, los valores límite admisibles para motocicletas, ciclomotores y cuadriciclos ligeros serán los indicados en la documentación/placa de homologación del vehículo para el régimen motor correspondiente. En el caso de que el vehículo careciera de dicha indicación los límites a aplicar serán los indicados en la tabla siguiente:

Ziklomotor eta motozikletek, ibilgailua geldituta dagoela, sortuko duten zarata-mailarentzako gehieneko neurriak		
Límites máximos del nivel sonoro emitido por ciclomotores y motocicletas a vehículo parado		
<i>Ibilgailuaren kategoria</i> <i>Categoría del vehículo</i>	<i>Zilindrada</i> <i>Cilindrada</i>	<i>Zarata maila, dB(A)tan adierazia</i> <i>Nivel sonoro expresado en dB (A)</i>
Sidekarrik gabeko bi gurpileko ibilgailuak eta kuadriziklo arinak Vehículos de dos ruedas sin sidecar y cuadriciclos ligeros	≤ 80 cc	96
Sidekarrik gabeko bi gurpileko ibilgailuak eta kuadriziklo arinak Vehículos de dos ruedas sin sidecar y cuadriciclos ligeros	80 cc a 175 cc.	98
Sidekarrik gabeko bi gurpileko ibilgailuak eta kuadriziklo arinak Vehículos de dos ruedas sin sidecar y cuadriciclos ligeros	> 175 cc.	101

3. Ebaluazioa egiteko saiakerak beti ibilgailua geldian dagoela egingo dira eta Agintarau honen Eranskinean zehaztutak daudenak izango dira.

10. artikulua. Zarata neurketak egiteko kapacitazio mailak.

Aurreko artikuluetan adierazi diren neurketak egiteak horretarako gaitasun teknikoa izatea eskatzen du, neurketa horien fidagarritasuna eta haien emaitzak bermatu ahal izateko.

Neurketa horiek egiteko Sonometroen erabilieran trebatzeko ikastaro bat egitea eta Agintarau honen ezagutza eskatu ahal izango dira. Ikastaro horrek gutxienez 12 ordu iraungo du eta ondorengo hauek eman ahal izango dute:

- Akustikan aditua den Enpresa edo Ingenieri-etxeak.
- Administrazioarekin lan egiten duen Erakunde batek.
- ENAC-ek ikerketa akustikoak egiteko akreditatutako laboratorioak.

11. Tresneria akustikoak izan beharreko prezisio baldintzak.

- Sonometroek:
- Araudiak:

Neurketetan erabiliko diren ekipoei UNE EN 60651:1996ean eta ondorengo UNE EN 60651/A1:1997

3. Los ensayos de evaluación, que se realizarán siempre según el método del vehículo parado, serán los explicitados en el Anexo de la presente ordenanza.

Artículo 10. Niveles de capacitación para la realización de mediciones acústicas.

La realización de las mediciones referidas en los artículos precedentes exige estar en disposición de la oportuna capacitación técnica, con objeto de poder garantizar la fiabilidad y los resultados de las mismas.

Para poder efectuar estas mediciones será requisito exigible la realización de un curso de adiestramiento en el manejo del Sonómetro así como del conocimiento de la presente Ordenanza. Este curso tendrá una duración mínima de 12 horas y podrá ser impartido por:

- Empresa o Ingeniería especializada en Acústica.
- Entidad colaboradora de la Administración.
- Laboratorio acreditado por ENAC para la realización de estudios acústicos.

Artículo 11. Requisitos de precisión de la instrumentación acústica.

- Sonómetros:
- Normativa reguladora:

Los equipos empleados en las medidas deben cumplir las exigencias definidas en UNE EN 60651:1996 y modificaciones

—Sonometroak- eta UNE EN 60804:1996 aldaketetan eta ondorengo UNE EN 60804/A2:1997 – Sonometro integradore promediadoreak aldaketetan edota haiek ordezkatzuko dituzten araudietan zehaztuak dauden eskakizunak bete beharko dituzte.

— Zehaztasuna:

Neurketak egiteko sonometroei eskatuko zaien zehaztasun maila 1. Tipokoa izango da.

— Mantenimendua:

Zarata-neurketak instituzio baimendu batek akreditatutako kalibrazioa duten ekipoekin egingo dira. Kalibrazio-datak neurketen eguna baino urte bete gutxiagokoa izan beharko du.

12. artikulua. Arau hausteak eta zigorrak.

1. Arau-hauste administratibotzat joko dira Agintarau honetan jasoak dauden xedapenen aurka egindako egintzak eta ez-egiteak.

2. Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira, ondorengo ataletan jasoa dagoen mailaketaren arabera.

2.1. Arau-hauste arina.

Arau-hauste arina izango da:

a) Onar daitekeen zarata-neurria 6 dB (A) baino gutxiago gaititzea.

b) Agintarau hauei egin dakioken beste edozein arau-hauste, hura arau-hauste larri edo oso larrietan espreski sartua ez badago.

2.2. Arau-hauste larria:

Arau-hauste larriak izango dira:

a) Onar daitekeen zarata-neurria 6 eta 12 dB(A) artean gaititzea.

b) Aurkitu diren akatsak zuzentzeko Udalak egindako eskariak ez betetzea.

c) Beste arau-hauste arin bat egitea urte beteko epean.

d) Ibilgailua ez aurkeztea ikuskatze-saiotetara.

2.3. Arau-hauste oso larria.

Arau-hauste oso larria izango da:

a) Isilgailurik gabe ibiltzea edo haiek alferrikako edo desgokiak direla edota hodi burrunbarrak jarrita ibiltzea.

b) Ikusketa eta kontrol lanari ezetz esatea edo haiei oztopoak jartzea.

c) Onar daitekeen zarata-neurria 12 dB(A) baino gehiago gaititzea.

d) Beste arau-hauste larri bat egitea urte beteko epean.

3. Alkateari dagokio zigorrak ezartzea, maila guztietan, beste agintaritz-maila batzuei dagozkien kalterik gabe. Halakoetan, indarrean den legediak zehazten dituen arau-hausteen berri emango zaie agintari horiei.

4. Zigorrak:

Agintarau honi egiten zaizkion arau-hausteak era honetan zigortuko dira:

posteriores UNE EN 60651/A1:1997-Sonómetros- y UNE EN 60804:1996 y modificaciones posteriores UNE EN 60804/A2:1997 –Sonómetros integradores promediadores, o aquellas normas que las sustituyan.

— Precisión:

El grado de precisión exigido a los sonómetros para realizar las medidas será de Tipo 1.

— Mantenimiento:

Las medidas acústicas se efectuarán con equipos que dispongan de una calibración acreditada por una institución autorizada, de modo que la fecha de calibración tenga una antelación menor de 1 año a la fecha de medición.

Artículo 12. Infracciones y Sanciones.

1. Se considerarán infracciones administrativas las acciones u omisiones que contravengan las disposiciones de la presente Ordenanza.

2. Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves de conformidad con la tipificación contenida en los apartados siguientes.

2.1. Infracción leve.

Constituye infracción leve:

a) Superar los valores límite admisibles en menos de 6 dB (A).

b) Cualquier otra infracción a las normas de la presente Ordenanza no calificada expresamente como grave o muy grave.

2.2. Infracción grave.

Constituye infracción grave:

a) Superar entre 6 dB(A) y 12 dB(A) los valores límite admisibles.

b) El incumplimiento de los requerimientos municipales para la corrección de las deficiencias observadas.

c) La comisión de una segunda infracción leve en el plazo de 1 año.

d) La no presentación del vehículo en las inspecciones.

2.3. Infracción muy grave.

Constituye infracción muy grave:

a) Circular sin elementos silenciadores o con los mismos ineficaces, inadecuados o equipados con tubos resonadores.

b) La negativa u obstrucción a la labor de inspección y/o control.

c) Superar en más de 12 dB(A) los valores límite admisibles.

d) La comisión de una segunda infracción grave en el plazo de 1 año.

3. Corresponde la imposición de sanciones en cualquiera de sus grados al Alcalde, sin perjuicio de las que puedan corresponder a otras autoridades, a las que se dará traslado de aquellas infracciones que determine la legislación vigente.

4. Sanciones.

Las infracciones a los preceptos de la presente Ordenanza se sancionarán de la forma siguiente:

a) Agintarau honen arabera arau-hauste arinak direnak: Ohartarazpena edota 60 € arteko isuna.

b) Agintarau honen arabera arau-hauste larriak direnak: 61 €tik 80 € arteko isuna.

c) Agintarau honen arabera arau-hauste oso larriak direnak: 81 €tik 91 € arteko isuna.

Trafikoari, Ibilgailu motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean zehaztuak dauden zigorrak ezarriko zaizkie arau horretan espreski arau-hauste larri edota oso larrietan sartzen direnei.

Udalak dagokion sektoreko legedian jasoak dauden zigorrak ezarri ahal izango ditu, egin den arau-haustea sektoreko legedian espreski tipifikatua baldin badago.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agintarau honetan xedatu den jardunbidea Administrazioaren beste organismo batzuei euren eskumenen arloan dagozkien interbentzioen kalterik gabe izango da.

AZKEN XEDAPENA

Agintarau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta dagozkion erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko jendaurreko epea inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu gabe, edota, aurkeztuko balira, horretarako eskumena duen organoak haiek aztertu eta erabakitzeke epea igaro ondoren jarriko da indarrean, agintarauaren behin betiko onarpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzearekin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agintarau hau indarrean jartzearekin indagabeturik geratuko dira Agintarau honetan aratutakoaren aurka datozen, harekin kontraesanetan dauden edota harekin bateragarriak ez diren maila bereko arau edo udal erabaki guztiak.

Azpeitia, 2004ko azaroaren 9a.—Julian Eizmendi Zinkunegi, Alkatea.

(3751)

(10378)

ERANSKINA

IBILGAILU ETA ZIKLOMOTORREN ZARATA-IGORPENAK NEURTZEKO METODO MURRIZTUA

Neurketak egiteko baldintza orokorrak.

Neurketa horiek neurgailuaren A frekuentziako ponderazioa eta FAST (azkarra) denbora-ponderazioa erabiliz egingo dira. Neurketa epean L_{MAX} maila zehaztu beharko da.

— Eguraldi baldintzak:

Neurketak ez dira egingo eguraldi baldintzak aldekoak ez direnean. Haizearen aurkako babesen bat erabiliko balitz, kon-tuan izan beharko da horrek mikrofonoaren sentsibilitate eta ezaugarri direkzioaletan izan dezakeen eragina.

a) Infracciones calificadas como leves según la presente Ordenanza, con apercibimiento ó multa hasta 60 €.

b) Infracciones calificadas como graves según la presente Ordenanza, con multa de 61 € a 80 €.

c) Infracciones calificadas como muy graves según la presente Ordenanza, con multa de 81 € a 91 €.

Se sancionarán con las sanciones establecidas en la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial las infracciones cometidas que estén calificadas en dicha norma, expresamente como graves o muy graves.

El Ayuntamiento podrá aplicar las sanciones establecidas en la legislación sectorial correspondiente siempre y cuando la infracción cometida este expresamente tipificada en la misma.

DISPOSICION ADICIONAL

El régimen que establece la presente Ordenanza se entiende sin perjuicio de las intervenciones que correspondan a otros organismos de la Administración en la esfera de sus respectivas competencias.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicada la misma en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y transcurrido el plazo de información pública de treinta días para la presentación de posibles reclamaciones y sugerencias, sin que se haya presentado ninguna o, en caso contrario una vez analizadas y resueltas las reclamaciones y sugerencias por el órgano competente, con la publicación de la aprobación definitiva en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

DISPOSICION DEROGATORIA

Con la entrada en vigor de la presente Ordenanza quedan derogadas todas las normas de rango igual o acuerdos municipales que se opongan a lo que regula esta Ordenanza, la contradigan o resulten incompatibles.

Azpeitia, a 9 de noviembre de 2004.—El Alcalde, Julian Eizmendi Zinkunegi.

(3751)

(10378)

ANEXO

METODO REDUCIDO DE MEDICION DE LAS EMISIONES SONORAS DE VEHICULOS Y CICLOMOTORES.

Condiciones generales de medición.

Las medidas se efectuarán empleando la ponderación en frecuencia A y la ponderación temporal FAST del equipo de medida. Se deberá determinar el nivel L_{MAX} en el periodo de medida.

— Condiciones meteorológicas:

Las medidas no se realizarán en condiciones meteorológicas desfavorables. Si se utiliza una protección contra el viento, se tendrá en cuenta su influencia sobre la sensibilidad y las características direccionales del micrófono.

— Ibilgailuaren egoera:

Ibilgailuak hura mugitzeko beharrezko ez diren baina errepidean, zirkulazio normalean dabilenean erabiltzen, beharrezko diren tresnak baldin baditu, agente automatikoko haizegailuak, estate baterako, hauek funtzionamenduan izan beharko dute, fabrikatzailearen espezifikazioen arabera.

— Neurketa egiteko barrutiaren ezaugarriak eta lekuaren baldintzak:

Neurketak egiteko gune edo barruti egokitzat joko da kanpoan, atari zabalean dagoen edozein leku, haren zoladura hormigoi, asfalto edota islapen-ahalmen handiko beste edozein materialezkoa baldin bada (ez dira onartuko lurrezko azalerak, harrotuak izan edo ez) eta han errektangulu bat marrazterik baldin badago, gutxienez ibilgailuaren ertzetatik hiru metroko tartearekin (motozikleta eta ziklomotorretan, eskulekua kontuan izan gabe). Errektangulu horren barruan ez da oztopo nabaririk egongo eta, bereziki, ibilgailua ez da jarriko espaloi-ertz batetik metro bete baino gutxiagora ihes-tutuaren zarata neurtzeko lanak egiterakoan.

Neurketa egiteko lanetan ez da egongo inor gune horretan sartua, izendatutako neurtzailea eta gidaria izan ezik eta, edonola ere, haiek han egoteak ez du neurketaren emaitza nahasiko.

Ingurunean dagoen zarata-maila neurtu beharko da. Horrek emango duen emaitzak neurtu nahi den zarata-maila baino 10 dB(A) txikiagoa izan beharko du, gutxienez.

Neurketa egiteko modua.

— Neurketa kopurua:

Hiru neurketako laginketa egingo da, gutxienez, puntu bakoitzean. Neurketak ez dira onartatzen emango laginketa bat berean, bata bestearen atzetik egindako hiru neurketaren artean aterako den aldea 2 dB(A) baino handiagoa bada eta horrelakotarik neurketak berriro egin beharko dira.

— Ibilgailuaren kokapena eta prestaketa:

Ibilgailua neurketarako gunearen erdian jarriko da, martxa-aldagailua abiadura-martxarik sartu gabe jarrita eta motorra lozagi edo enbragea sartuta. Ibilgailuaren diseinuak ez badu horrela egiteko aukerarik ematen, euskarri baten gainean jarrita neurtuko da, ibilgailu horren gurpil eragilerari aske biratzeko aukera emanaz.

— Zarataren neurketa ihes-tutuaren inguruetan.

— Mirofonoaren kokapena (ikus 1. et 2. irudiak):

Ihes-tutuko gasen irteera zuloaren altuera berera jarriko da mikrofonoa, baina edonola ere gutxienez 0,2 metroko altuera izan beharko du.

Mikrofonoaren mintza gasen irteera-tuturantz begira jarriko da eta zulo horretatik 0,5 metrora.

Mikrofonoaren sentikortasunik handieneko ardatzak lurzoruari paraleloan egon beharko du eta $45^\circ \pm 10^\circ$ angelua eginez gasen irteerako norabideak sortzen duen plano bertikalarekin. Ardatz honi dagokionez sonometroaren egileak emandako jarraibideak errespetatu egin beharko dira. Plano bertikalari dagokionez, ibilgailuaren batez besteko plano longitudinaletik hasita ahalik eta tarterik handiena lortzeko moduan jarri behar

— Estado del vehículo:

Si el vehículo está provisto de dispositivos que no son necesarios para su propulsión, pero que se utilizan cuando se encuentra en circulación normal en carretera, como es el caso de ventiladores de mando automático, éstos deberán estar en funcionamiento conforme a las especificaciones del fabricante.

— Naturaleza del terreno de medición y condiciones del lugar:

Se considerará como zona de medida apropiada todo lugar al aire libre constituido por un área pavimentada de hormigón, asfalto o de otro material duro de fuerte poder de reflexión, excluyéndose las superficies de tierra, sean o no batidas, y sobre la que se pueda trazar un rectángulo cuyos lados se encuentren a tres metros como mínimo de los extremos del vehículo (sin tener en cuenta el manillar en el caso de motocicletas y ciclomotores), y en el interior del cual no se encuentre ningún obstáculo notable: En particular se evitará colocar el vehículo a menos de un metro de un bordillo de acera cuando se mide el ruido de escape.

Durante la medición no debe haber ninguna persona en dicha zona, a excepción del observador y del conductor designados, cuya presencia no debe perturbar el resultado de la medida.

Se deberá medir el nivel de ruido ambiental. Estas deberán ser, como mínimo, inferiores en 10 dB(A) al nivel sonoro que haya que medir.

Método de medida.

— Número de medidas:

Se llevará a cabo un muestreo de tres medidas como mínimo en cada punto. No se considerarán válidas si la diferencia entre los resultados de tres medidas realizadas inmediatamente una detrás de otra, en un muestreo, es superior a 2 dB(A), debiendo repetirse las mediciones.

— Posición y preparación del vehículo:

El vehículo se colocará en el centro de la zona de medida, con el cambio de marcha en punto muerto y el motor embragado. Si el diseño del vehículo no permite respetar esta prescripción, se medirá colocándolo sobre un apoyo, de forma tal que se permita a la rueda motriz del mismo girar libremente.

— Medida del ruido en las proximidades del escape.

— Posición del micrófono (Ver fig. 1 y 2):

La altura del micrófono respecto al suelo, debe ser igual al del orificio de salida de los gases de escape, pero en cualquier caso se limitará a un valor mínimo de 0,2 metros.

La membrana del micrófono se debe orientar hacia el orificio de salida de los gases y se colocará a una distancia de 0,5 metros del mismo.

El eje de sensibilidad máxima del micrófono debe ser paralelo al suelo y formar un ángulo de $45^\circ \pm 10^\circ$ con el plano vertical que determina la dirección de salida de los gases. Se respetarán las instrucciones del fabricante del sonómetro en lo relativo a este eje. Con relación al plano vertical, debe colocarse el micrófono de forma que se obtenga la distancia máxima a partir del plano longitudinal medio del vehículo. En caso de

da mikrofonoa. Zalantzarik balego, mikrofonoaren eta ibilgailuaren perimetroaren artean tarterik handiena ematen duen kokapena aukeratuko da.

Elkarren artean 0,3 metro baino gutxiagoko tarteak duten bi aterabide edo gehiago dituzten ihes-tutua balira, laginketa bakarra egingo da. Mikrofonoa, berriz, lurretik irteera-tuturik altuenera dagoen alturara jarriko da.

Elkarren artean 0,3 metro baino tarte handiagoa duten hainbat irteeraz osatutako ihes-tutua duten ibilgailuentzat, aterabide bakoitzarentzat hiru neurketako laginketa egingo da, horietako bakoitza irteera bakarra balitz bezala, eta egindako laginketa horietatik aterako den neurriak altuena hartuko da.

— Motorraren funtzionamendu baldintzak:

Motorraren abiadura ondorengo balio hauetakoren batean jarriko da:

* $\frac{1}{2}$ S, S hori minutuko 5.000 bira (rpm) baino handiagoa baldin bada.

* $\frac{3}{4}$ S, S hori minutuko 5.000 birakoa (rpm) edo txikiagoa baldin bada.

S hori izango da motorraren potentziarik handiena lortzen denean duen abiadura (minutuko biratan, rpm). Ibilgailuak homologazioa zatara-mailaren datua baldin badu (zarata ibilgailua geldirik dagoela) han adierazten den abiadurara (birak minutuko, rpm) egonkortuko da motorra.

Gehienez $\pm 3\%$ okerra duen prezisiodun tresna independente (takometroa, arrabolak...) batez neurtuko da abiadura hori. Takometro independenteak ez balitz izango eskura, azelerazioaren bide erdira arte poliki-poliki azeleratu ondoren estabilizatuko da motorearen bira-erregimena.

Bira-erregimen estabilizatua lortzen denean, azeleragailua ralenti egoerara eramango da azkar-azkar. Une labur batean motorrak biraketa-erregimen estabilizatu batean funtzionatzen duen bitartean eta desazelerazio denbora guztian neurtuko da zarata-maila. Sonometroak emango duen gehieneko neurriari dagokiona izango da ontzat emango den neurketa.

— Emaitzak interpretatzea:

Egingo den ebaluazio-aktan beharrezko diren datu guztiak jarriko dira eta, bereziki, ibilgailuak geldian sortzen duen zarata neurtzeko balio izan dutenak.

Sonometroak jasotako neurriak hurbilen gertatzen den dezi-beliora ekarriko dira. Hiru neurketa jarraituan lortutako neurriak bakarrik hartuko dira kontuan eta, beti ere, haien arteko aldeak 2 dB(A) baino handiagoak ez badira.

Kontuan hartuko den balioa hiru neurketa horien batezbesteko aritmetikoa izango da ziklomotorrei dagokienez, eta hiru neurketen arteko gehieneko neurria, berriz, motozikleta eta kuadriziklo arinen kasuan.

Neurgailuek izan dezaketen doitasun edo zehaztasun-eza kontuan izateko, neurketa egitean neurgailuan irakurritako balioak 1 dB(A) jaitsiko dira.

duda se escogerá la posición que dé la distancia máxima entre el micrófono y el perímetro del vehículo.

En el caso de escapes de dos o más salidas que disten entre sí menos de 0,3 metros, se llevará a cabo un solo muestreo quedando determinada la posición del micrófono con relación a la salida más alta desde el suelo.

Para los vehículos cuyo escape consta de varias salidas con sus ejes a distancias mayores de 0,3 metros se realizará un muestreo de tres medidas para cada salida, como si cada una de ellas fuera única y se considerará el máximo nivel resultante entre ambos muestreos.

— Condiciones de funcionamiento del motor:

El régimen del motor se estabilizará en uno de los siguientes valores:

* $\frac{1}{2}$ S si S es superior a 5000 rpm.

* $\frac{3}{4}$ S si S es inferior o igual a 5000 rpm.

Siendo S el régimen del motor (rpm) en que se alcance la potencia máxima del mismo. En el caso de que el vehículo disponga del dato de nivel sonoro de homologación (ruido a vehículo parado) se estabilizará el motor al régimen (rpm) que en el mismo indique.

Este régimen se medirá mediante dispositivo (tacómetro, rodillos...) independiente cuya precisión sea de un error máximo de $\pm 3\%$. En el caso de no disponerse de tacómetro independiente el régimen de motor se estabilizará después de acelerar suavemente a medio recorrido de aceleración.

En cuanto se alcance el régimen estabilizado se llevará rápidamente el acelerador a la posición de ralentí. El nivel sonoro se medirá durante un periodo de funcionamiento en el que el motor se mantendrá brevemente a un régimen de giro estabilizado, y durante todo el periodo de desaceleración. El resultado de la medición que se considerará válido será el que corresponda a la indicación máxima del sonómetro.

— Interpretación de resultados:

En el acta de la evaluación que se levante deberán hacerse constar todos los datos necesarios y en especial los que hayan servido para medir el ruido del vehículo parado.

Los valores medidos por el sonómetro se redondearán al decibelio más próximo. Sólo se tendrán en cuenta los valores obtenidos en tres mediciones consecutivas y siempre que las diferencias respectivas no sean superiores a 2 dB(A).

El valor que se tendrá en cuenta será la media aritmética de estas tres mediciones en el caso de ciclomotores y el valor máximo de los tres en el caso de motocicletas y cuadriciclos ligeros.

Para tener en cuenta la imprecisión de los aparatos de medida, los valores leídos en el aparato durante la medida se disminuirán en 1 dB(A).

Ibilgailuen zarata neurtzerakoan datuak jasotzeko ereduak

1.- Ibilgailua identifikatzeko datuak.

Marka			
Izen komertziala			
Homologazio pasahitza			
Homologazioan onar daitekeen zarata-neurria dB(A)		Zarataren homologaziorako motorraren birak (rpm)	
Jabea			
Matrikula			
Aurrez ebaluatua BAI EZ	Eguna	Emaita	

2.- Erabilitako neurgailuaren ezaugarriak.

Sonometroa	Marka	Eredua	Homologazio data

3.- Ibilgailuaren zarata-maila.

Inguruko zarata maila ⁽¹⁾	dB(A)
--------------------------------------	-------

	dB(A)	rpm	tarte (m) ⁽²⁾	Oharrak
Lehenengo neurketa				
Bigarren neurketa				
Hirugarren neurketa				
Ebaluazioaren emaitza ⁽³⁾	dB(A)	Bi gurpileko ziklomotorrentzat: hiru neurketen batezbesteko aritmetikoa. Gainerako ibilgailuentzat: neurketarik handiena.		

Ihes-tutuko gailuak ebaluazioan dituen ezaugarri eta baldintzak.

¹ "Inguruko zarata"ren neurriak, gutxienez, neurtu den zarata-neurria (hots, ibilgailuaren "zarata"ren neurria) baino 10 dB(A) txikiagoa izan beharko du.

² Sonometrotik ihes-tutura dagoen tarte.

³ Emaitzak baliozkoak izango dira bi neurri jarrairen arteko aldea 2 dB(A) baino handiagoa ez bada.

Ebaluaketa lekuaren deskribapena eta kokalekua.

4.- Zarataren aurkako udal-agintaraua betetzea.

5.- Berrito ebaluatu beharra.

Etorri behar al du?		Eguna
BAI	EZ	

6.- Beste zenbait ohar.

(Zarataren azterketa egin duen arduradunaren izena eta sinadura)

(Ebaluazio eguna)

(Ibilgailuaren arduradun edo gidariaren izena eta sinadura)